

ikasmina:

**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizi-tza guztian zeharreko  
ikasketari buruzko dokumentuak

# Ikasten duten pertsonak Gipuzkoan

**78. dokumentua**  
**2021eko ekaina**

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Turismo-ko eta Landa  
Ingurune-ko Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo  
y Medio Rural

## AURKIBIDEA

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena .....	3
<b>2. Ikasten duten pertsonak .....</b>	<b>4</b>
2.1. Bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzea.....	4
2.2. Ikaskuntza, adinaren eta formakuntzaren arabera.....	6
2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko lotura.....	8
<b>3. Zein dira ikasten duten pertsonak? .....</b>	<b>9</b>
3.1. Ikasten duten pertsonen tipologia .....	9
3.2. Ikasten ez duten pertsonen tipologia .....	11
3.3. Pertsonak zergatik ez dute ikasten? .....	13
<b>4. Ondorioak.....</b>	<b>17</b>
4.1. Laburpena: emaitza nagusiak.....	17

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutzen oinarritutako ekonomia lehiakorra eta dinamikoa duen gizartea bihurtu nahi du. Horretarako, bizitza osoko ikaskuntza oso tresna garrantzitsua dela uste da; izan ere, pertsonen eta gizartearen hazkunde pertsonala, profesionala eta soziala bultzatzen du.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak uste du talentuaren ikaskuntza eta garapena elementu estrategikoa dela aurrerapen eta kohesio sozialean. Bertan, pertsonak izango dira ardatzak: sozialki jasangarria den garapen-eredua eraiki nahi duen Lurraldea, pertsonen talentua, erakundeen dinamismoa eta bultzada teknologikoa elkartuz.

Gero eta konplexuagoa, malguagoa den eta interkonektatuago dagoen gizartean, ikaskuntza-prozesuak oso garrantzitsuak dira; are gehiago, pertsonak bizitza osoan landu behar dituzte (pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala), eta horrela, beren ezagutzak, trebetasunak eta kualifikazioak mantendu, hobetu eta zabalduko dituzte.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du eta urtero egindako kontsultaren (urteko lehen hiruhilekoa) emaitzak biltzen ditu; hala, 2021eko ikaskuntza-jarduerekin lotuta pertsonen gai garrantzitsuetan oinarritzen da.

## 2. Ikasten duten pertsonak

### 2.1. Bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzea

#### Gipuzkoako pertsona helduen % 38,0k ikasi dute, pandemia tartean izan arren

2021ean, bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan<sup>1</sup> parte hartu duen Gipuzkoako biztanleria heldua (25-74 urte artean) % 38,0an kokatzen da eta 2020ko datuekin alderatuta, ia-ia mantendu egiten da (% 40,3). Edonola ere, atzerapen txiki bat (ehuneko -2,3 puntu) erakutsiko luke eta hori bizi izandako salbuespeneko egoeragatik izan liteke; izan ere, emaitzak 2021eko otsailean zehar egindako kontsultaren aurreko hamabi hilabeteetan ikaskuntzan izandako parte-hartzearekin daude lotuta.

Hala eta guztiz ere, nabarmendu behar da parte-hartze tasa horrek, urte arteko gorabehera arinak dituen arren, Gipuzkoako biztanleria helduaren % 40 inguruko profil egonkorra mantentzen duela (2010-2020 batez bestekoa). Ondorioz, eta lehen emaitza gisa, nabarmendu beharrekoa da pandemiaren kontrolak sortutako egoera alde batera utzita, gune kontrolatuetan eta seguruetan, edota urrunekoan egindako ikaskuntza-sistemek funtzionatu dutela eta ikaskuntza-tasa antzeko balioetan mantendu dela.


Ikaskuntzan parte-hartzea antzekoa da emakumeen eta gizonen artean (% 38,3 eta % 37,8, hurrenez hurren); hala ere, emakumeek gizonek baino neurri handixeagoan ikasten dute (ehuneko +0,5 puntu). Nabarmentzekoa da, ordea, aurreko ekitaldiekin alderatuta alde hori murriztu egiten dela (ehuneko +4,2 puntu; 2018an eta 2019an);

<sup>1</sup> Titulu ofiziala lortzera (ikaskuntza formala) bideratutako eta modu antolatuan eta iraunkorrean egin arren, titulurik ez duten (ikaskuntza ez formala) ikaskuntza-jarduerak biltzen ditu.

hain zuzen ere, aurreko ekitaldiak agerian jartzen zuen bitzta osoko ikaskuntza-jardueretan emakumeek parte-hartze handiagoa zutela. Badirudi arraila hori murriztu egin dela 2021ean, baina ikusiko da ea datozen urtetan finkatzen den.

### 1. grafikoa Ikasten duten pertsonak, sexuaren arabera. 2020-2021

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneako Saila

Bi taldeetan, emakumeak eta gizonak, ikaskuntza ez-formala (% 31,0 eta % 32,5, hurrenez hurren) nagusitzen da modalitate formalaren aurrean (% 11,3 eta % 8,3, hurrenez hurren), eta ia ez dago alderik 2020koarekin alderatuta. Gainera, dagoeneko aipatu den moduan, erregistratutako ezohiko egoeraren aurrean, emaitza horiek finkatzeke egongo liriateke.

### 1. taula Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza motaren eta sexuaren arabera. 2020-2021

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren %

	2020	2021
<b>Ikasten duten emakumeak</b>	<b>42,4</b>	<b>38,3</b>
Ikaskuntza formala	9,9	11,3
Ikaskuntza ez formala	35,2	31,0
<b>Ikasten duten gizonak</b>	<b>38,3</b>	<b>37,8</b>
Ikaskuntza formala	6,8	8,3
Ikaskuntza ez formala	33,3	32,5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneako Saila

## 2.2. Ikaskuntza, adinaren eta formakuntzaren arabera


### Ikaskuntzako parte-hartzea jaitsi egiten da adinak gora egin ahala

Atxikitako grafikoak erakusten du gazteek neurri handiagoan ikasten dutela, adinez nagusiagoak direnekin alderatuta. Zehazki,

- 25 eta 34 urte arteko hamar pertsonatetik seik adierazi dute prestakuntza-jardueretan parte hartu dutela 2021ean (% 61,5); proportzio horrek gora egin du 2020koarekin alderatuta (ehuneko +2,7 puntu).
- 35 eta 44 urte bitarteko biztanleriaren artean, ia erdiek ikasi egiten dute (% 48,0). Era berean, 45 eta 54 urte arteko taldearen heren batek baino gehiagok adierazi du prestakuntza-jardueretan parte hartu duela azken urtean (% 36,5). Hala eta guztiz ere, bi taldeek 2020an lortutakoa baino tasa zertxobait baxuagoa erregistratu dute (ehuneko -4,0 eta -7,0 puntu, hurrenez hurren).
- 55-64 urte arteko lau pertsonatetik batek ikasi egin du 2021ean (% 25,9), eta 2020ko datuekin alderatuta atzerakada arina izan da (ehuneko -2,4 puntu).
- Azkenik, adinez nagusiagoak diren (65-74 urte) pertsonen artean, % 16,9k soilik ikasten du eta 2020an lortutako antzeko balioetan (ehuneko +1,0 puntu).

Azken finean, Gipuzkoako pertsona helduen adinak gora egin ahala, ikaskuntzako parte-hartzeak beherantz egiten du, eta joera hau bat dator aurreko urteetan gertatutakoarekin.

### 2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, adin-taldean arabera. 2020-2021



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneke Sailla

## Ikaskuntzako parte-hartzea igo egiten da lortutako prestakuntzak (erregularra) gora egin ahala

Gipuzkoako biztanleria helduak lortutako ikasketa mailak alde handiak erakusten ditu bizi osoko ikaskuntza-jardueretako parte-hartzeari dagokionez. Zehazki,


- Goi mailako ikasketak egin dituzten pertsonen erdiek baino gehiagok adierazi dute azken urtean ikasi izana (% 51,7).
- Proportzio hori heren batera murrizten da bigarren mailako ikasketak dituzten artean (% 32,2).
- Eta % 18,7koa da lehen mailako hezkuntza duen biztanleriaren artean.

Banaketa hori mantendu egiten da 2020ko datuekin alderatuta. Lortutako ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, ikaskuntza-tasa ere orduan eta altuagoa izango da. Hala eta guztiz ere, bilakaerak jaitsiera arin bat erakusten du, prestakuntza maila guztiek partekatzen dutena. Hala ere, jaitsiera hori areagotu egiten da goi mailako ikasketak dituzten artean (ehuneko -4,9 puntu), bigarren mailako hezkuntza (ehuneko -2,4 puntu) eta lehen mailako hezkuntza (ehuneko -0,3 puntu) dutenekin alderatuta.

*Oharra: kontuan izan behar da korrelazio handia dagoela egindako ikasketen eta pertsonen adinaren artean, une historiko bakoitzean ikasteko aukeren ondorioz.*

### 3. grafikoa Ikasten duten pertsonak, lortutako ikasketa mailaren arabera. 2020-2021

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren %



*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Saila*

## 2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko lotura

### Langileek neurri handiagoan ikasten dute

Atxikitako koadroak ikaskuntzako parte-hartzea erakusten du, Gipuzkoako biztanleria helduaren lan-egoeraren arabera. Horrela, berresten da biztanleria aktiboak -lan egiten duenak edota lan egin nahi duenak- biztanleria ez aktiboak -erretirodunak edota lan merkatuan sartu gabeak- baino neurri handiagoan ikasten duela.

Hau da, konexio garrantzitsua dago laneko posizioaren eta ikaskuntzaren artean. Horrek adierazten du (orain arte behintzat) konexio hori desagertzen den heinean, ikaskuntza-tasak behera egiten duela. Hala,

- Lan edo lanbide bat garatzen duten hamar pertsonatik lauk adierazi dute ikasi egin dutela azken urtean (% 45,3), langabezia-egoeran dagoen taldearekin batera (% 40,7).
- Aldiz, parte-hartze maila nabarmen murrizten da erretiroa hartutako pertsonen (% 21,1) edota lan-merkatura sartu gabekoen artean (% 7,7).

Egitura hori mantendu egiten da 2020ko datuekin alderatuta, baina gorabehera arinak ditu ikaskuntzako parte-hartze ratioan. Horrela, gora egin du langabezian (ehuneko +4,7 puntu) eta erretiroa hartuta (ehuneko +4,3 puntu) egonda ikasten duten pertsonen proportzioak. Aldiz, behera egin du lanean arituta (ehuneko -6,3 puntu) eta ordainpeko lan-merkatura sartu gabe (ehuneko -1,7 puntu), prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten pertsonen proportzioak.

**2. taula** Ikasten duten pertsonak, enpleguarekiko duten harremanaren arabera. 2020-2021

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren %

	2020	2021
Ordaindutako enplegua du	51,6	45,3
Langabezian	36,0	40,7
Erretiratua	16,8	21,1
Lan-merkatura sartu gabe	9,4	7,7
<b>Guztira</b>	<b>40,3</b>	<b>38,0</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Saila



# 3. Zein dira ikasten duten pertsonak?

## 3.1. Ikasten duten pertsonen tipologia

**25 eta 44 urte arteko emakumeak eta gizonak, hirugarren mailako ikasketak eta ordainpeko enplegua dutenak**

Bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duen Gipuzkoako biztanleria helduaren ezaugarriak:

- Ikasten duten pertsonen erdiak emakumeak dira (% 50,3), baina gizonezkoen taldeak gero eta pisu handiagoa du (% 49,7), eta 2020ko datuekin alderatuta, zertxobait gora egin du gizonezkoen proportzioak (ehuneko +2,4 puntu).
- Ikasten duten hamar pertsonatatik seik 25-44 urte artean dituzte (% 57,9). Gainerako adin-taldeen adinaren arabera beherakorra den proportzioa dute (45-54 urte artekoak % 20,4, 55-64 urte artekoak % 14,5 eta 65-74 urte artekoak % 7,2). Aurreko ekitaldiekin alderatuta, banaketa hori mantendu egiten da.
- Goi mailako ikasketak dituen biztanleriaren kopurua bi herenekoa da ikaskuntza-jarduerak egin dituen taldearen barruan (% 60,5); bigarren mailako hezkuntza duten pertsonak (% 28,9) eta lehen mailakoak dituztenak (% 10,5) datoz jarraian. 2020ko datuekin alderatuta, ez da alde handirik nabari.
- Azkenik, ikasten duen lau pertsonatatik hiruk ordainpeko lan bat (% 75,0) du. Horiek, langabezian dagoen biztanleriarekin batera (% 10,9) prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten Gipuzkoako biztanleria helduaren gehiengoa biltzen dute (guztizkoaren % 85,9). Gainerako taldeek pisu erlatibo txixixeagoa dute. Erretiroa hartutako biztanleria (% 12,8) edota ordainpeko lan-merkatuan

sartu gabekoak (% 1,3) dira horiek. Hau da, lan-merkatuan parte hartzea oso garrantzitsua da ikaskuntzaren aurrean posizio aktiboari eusteko.

Azken finean, bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duen Gipuzkoako biztanleria helduaren (25-74 urte) profila hauei dagokie: 25 eta 44 urte arteko emakumeak eta gizonezkoak, goi mailako ikasketak dituztenak, eta batez ere, ordainpeko enplegua dutenak. Profila, aurreko urteko ekitaldiekin alderatuta, mantendu egiten da, baina jokabide batzuk areagotu dira, esate baterako: gizonek ikaskuntzan duen pisuaren hobekuntza eta enplegarritasunaren eta ikaskuntzan parte-hartzearen arteko lotura.

### 3. taula Ikasten duen biztanleriaren ezaugarriak. 2020-2021

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren %

	2020	2021
<b>Generoa</b>		
Gizonezkoak	47,2	49,7
Emakumezkoak	52,8	50,3
<b>Adina</b>		
25-34 urte	23,8	26,3
35-44 urte	32,1	31,6
45-54 urte	22,8	20,4
55-64 urte	14,8	14,5
65 urte eta gehiago	6,5	7,2
<b>Ikasketa maila</b>		
Lehen mailako ikasketak	11,4	10,5
Bigarren mailako ikasketak	27,8	28,9
Goi mailako ikasketak	60,8	60,5
<b>Egoera lan-jarduerari dagokionez</b>		
Ordaindutako enplegua du	79,6	75,0
Langabezian	8,3	10,9
Erretiratua	9,9	12,8
Lan-merkatura sartu gabe	2,2	1,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Saila

## 3.2. Ikasten ez duten pertsonen tipologia

### 45 urte eta gehiagoko pertsonak eta lehen eta bigarren mailako ikasketak dituztenak

2021ean ikaskuntza-jardueretan ez dutela parte hartu adierazten duen Gipuzkoako biztanleria helduaren profilak honako hau erakusten du:

- Gizonezkoek osatzen dute ikasten ez duten taldearen erdia eta ia ez dago alderik emakumeen proportzioarekin lotuta (% 50,2 eta % 49,8). Horrela, ikusten da sexua ez litzatekeela faktore bereizlea izango ikasten duen edo ikasten ez duen biztanleria helduaren profila zehazteko garaian.
- Azken urtean ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten pertsonen bi herenek baino gehiagok 45 urte eta gehiago ditu (% 69,0), eta gazteenen taldeak du garrantzirik txikiena. Aurreko ekitaldiekin alderatuta, jokabide hori sendotu egiten da.
- Ikasten ez duten herritar gehienek (% 65,3) hirugarren mailakoa baino ikasketa maila baxuagoa dute; aldiz, goi mailako ikasketak dituen taldeak guztizkoaren herena osatzen du (% 34,7). Banaketa horrek, aurreko aldiekin alderatuta, ez du aldaketa handirik erakusten.
- Ikasten ez duten hamar pertsonatik bostek lan egiten dute (% 55,4), hamarretik bat langabezian egongo litzateke (% 9,7) eta hamarretik ia hiru erretiroa hartuta egongo lirateke (% 29,4). Ildo horretatik, hobekuntza-marjina handia nabari da lan egiten duen edo lan egin nahiko lukeen (hamar pertsonatik ia zazpi) taldearen ikaskuntza-mailan; izan ere, horien kasuan, motibazio profesionalak faktore eragilea izan beharko luke trebatzen jarraitzeko.

Bestalde, erretiroa hartutako pertsonak ikaskuntzarekin duten lotura txikia etapa profesionalaren amaierarekin azalduko litzateke; izan ere, arrazoi pertsonalengatik edo aisialdiko arrazoiengatik ikasiko lukete; azken batean, antzeko ezaugarriak dituen biztanleriaren artean hain zabaldua ez dagoen motibazioa<sup>2</sup> (pertsonala) da hori.

<sup>2</sup> Ikaskuntza, errealizazio pertsonaleko, aisialdi aktiboko eta abarreko gune gisa.

**4. taula Ikasten duen eta ikasten ez duen biztanleriaren ezaugarriak. 2021**

25 eta 74 urteko arteko biztanleriaren %

	<b>Ikasten duen biztanleria</b>	<b>Ikasten ez duen biztanleria</b>
<b>Generoa</b>		
Gizonezkoak	49,7	50,2
Emakumezkoak	50,3	49,8
<b>Adina</b>		
25-34 urte	26,3	10,1
35-44 urte	31,6	21,0
45-54 urte	20,4	21,8
55-64 urte	14,5	25,4
65 urte eta gehiago	7,2	21,8
<b>Ikasketa maila</b>		
Lehen mailako ikasketak	10,5	28,0
Bigarren mailako ikasketak	28,9	37,3
Goi mailako ikasketak	60,5	34,7
<b>Egoera lan-jarduerari dagokionez</b>		
Ordaindutako enplegua du	75,0	55,4
Langabezian	10,9	9,7
Erretiratua	12,8	29,4
Lan-merkatura sartu gabe	1,3	5,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneke Saila

### 3.3. Pertsonak zergatik ez dute ikasten?

#### Familiako erantzukizunak eta motibazio-gabezia dira oztopo nagusiak

2021ean ikaskuntza-jardueretan ez parte hartzeko aintzat hartutako arrazoen garrantzia biltzen du atxikitako koadroak. Emaitzek hau erakusten dute:

- Familia-erantzukizunak (% 27,6) eta prestatzen jarraitzeko motibazio-gabezia (% 27,4) dira ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko oztopo nagusiak.
- Era berean, dagoeneko nahikoa ezagutza izatea (% 24,0) nabarmentzen da, baita laneko-ordutegiarekiko bateraezintasuna (% 23,2) eta ikasteko zaharregiak izatea (% 20,6) ere.
- Prestakuntzaren kostua izango litzateke garrantzirik gutxien izango lukeen oztopoa. Hori adierazi du ikasten ez duten hamar pertsonatetik batek (% 13,1). Ondorioz, ez litzateke ikaskuntzan parte-hartzea zailduko lukeen faktorea izango; izan ere, beste faktore batzuek pisu handiagoa dute, baina bere garrantzia ez litzateke gutxietsi behar; izan ere, ikasten ez duten hamar pertsonatetik batek adierazten du.

Ikasteko oztopo-rankinga mantendu egiten da, eta zenbait aldakuntza izan dira erantzute-tasan (kasu batzuetan, nahiko garrantzitsua). Hala eta guztiz ere, unearen ezohikotasuna dela eta, komeni da etorriko diren kontsulten emaitzei itxarotea, alde horiek finkatu egingo direla berresteko.

#### 5. taula Azken 12 hilabeteetan ikaskuntza-jardueretan ez parte hartu izanaren arrazoiak. 2020-2021

Ikasi ez duen 25 eta 74 urteko biztanleriaren %

	2020	2021
Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate	33,8	27,6
Motibazioa falta zait	22,8	27,4
Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira	12,1	24,0
Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin	32,6	23,2
Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut	13,4	20,6
Garestia da, ezin dut ordaindu	6,7	13,1

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

## Genero-arrakala, ez ikasteko oztopoen artean

2021ean ez ikasteko arrazoen azterketak alde handiak erakusten ditu emakumeen eta gizonen artean. Hala,

- Familia-erantzukizunak dira emakumeen artean ikasteko oztopo nagusia (% 32,0) eta gizonezkoen artean, laugarren postuan egongo litzateke (% 23,3). Gainera, laburtzen ez den arraila da.
- Motibazio-falta da gizonen artean oztopo nagusia (% 27,3) eta emakumeen kasuan bigarren postuan kokatzen da (% 27,5).
- Bi taldeek hirugarren oztopoaren garrantzia partekatzen dute. Hau da, nahikoa ezagutza dituztela uste izateagatik trebatzen jarraitzeko beharrik ez sentitzea (% 23,9 emakumea; % 24,1 gizonezkoa).
- Aldiz, nabarmendu beharrekoa da prestakuntza eta laneko ordutegia bateragarriak ez izatea; izan ere, gizonen artean, garrantziari dagokionez, bigarren oztopoa da (% 24,5) eta laugarren lekuan dago emakumezkoen taldean (% 21,9).
- Azkenik, nabarmendu beharrekoa da azken bi argudioen (adina eta prestakuntzaren kostua) artean erregistratutako akordio maila oso antzekoa dela bi taldeetan, eta edonola ere, ikaskuntza-jardueretan parte hartzearen aurrean (printzipioz) garrantzi erlatibo baxuagoko oztopoak izango lirateke.

### 6. taula Ikaskuntzan parte ez hartzeko arrazoiak, generoaren arabera. 2021

Ikasi ez duen 25 eta 74 urteko biztanleriaren %

	Gizonak	Emakumeak
<b>Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate</b>	23,3	32,0
<b>Motibazioa falta zait</b>	27,3	27,5
<b>Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira</b>	24,1	23,9
<b>Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin</b>	24,5	21,9
<b>Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut</b>	20,5	20,6
<b>Garestia da, ezin dut ordaindu</b>	13,3	13,0

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Ikasteko oztopoak adinaren arabera nabarmen aldatzen dira

Azkenik, azken urtean ikaskuntza-jarduerak egin ez dituen Gipuzkoako biztanleria helduaren adinari dagokionez, ikaskuntzarako oztopoen azterketa lantzen da. Emaitez alde handiak erakusten dituzte:

- 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak adierazitako argudio nagusia prestakuntzaren eta laneko ordutegiaren bateraezintasuna da (% 54,0).
- 35 eta 44 urte arteko taldean familiako erantzukizunak nagusitzen dira (% 44,2).
- 45 eta 64 urte arteko taldeak neurri handiagoan aipatzen du ikasteko motibazio-falta (% 30,3).
- Azkenik, 65 urte eta gehiagoko pertsonen artean, adina nabarmentzen da ikasteko oztopo nagusi gisa (% 38,0).

Gainera,

- Lehen eta bigarren oztopoaren arteko aldea oso handia da adinez gazteenak diren bi taldeen artean (25-34 urte eta 35-44 urte); hori dela eta, partekatutako zeharkako faktore gisa, lehen oztopoaren garrantzia handiagoa da.
- Baina adinak gora egin ahala, badirudi pertsonen egoeraren aniztasunak oztopoen aukera zabaltzen duela. Hori dela eta, lehenengo oztopoa aipatu dutenen multzoa txikiagoa da.

### 7. taula Ikaskuntzan parte ez hartzeko arrazoiak, adin taldearen arabera. 2021

Ikasi ez duen 25 eta 74 urteko biztanleriaren %

	Adin-taldeak			
	25-34	35-44	45-64	65 eta gehiago
<b>Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate</b>	28,0	44,2	25,6	15,7
<b>Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin</b>	54,0	30,8	20,5	7,4
<b>Motibazioa falta zait</b>	24,0	23,1	30,3	26,9
<b>Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira</b>	22,0	18,3	24,8	28,7
<b>Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut</b>	10,0	6,7	20,9	38,0
<b>Garestia da, ezin dut ordaindu</b>	24,0	10,6	11,1	14,8

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

**Metodologia: ikaskuntza-definizioen aplikazioa, neurketaren jarraikortasuna eta nazioarteko alderaketa bermatzen dituztenak**

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren ezagutza urteko inkesta bat egitean oinarritzen da. Definizioak<sup>3</sup> eta edukiak mantentzeak neurriaren jarraikortasuna bermatzen du, eta batez ere, nazioarteko alderagarritasuna. Zehazki, ikerketa-lerro honetan ikaskuntzako hiru kategoria handi hartzen dira kontuan:

- Ikaskuntza formala: heziketa- eta prestakuntza-zentroetan garatzen da, eta diplomak eta egiaztatutako prestakuntza lortzen dira.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean gauzatzen da, baina ez da titulu ofizialik eskuratzen. Ikaskuntza mota hori erakundeetan eta erakundeetatik kanpo egin daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, marrazketako eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko helburuarekin gauzatutako jarduera gisa definitzen da, baina nor bere kabuz egiten du, erakundeetara jo gabe. Ikaskuntza ez-formalaren kasuan baino antolaketa eta egituraketa gutxiagorekin eskuratzen dira ezagutzak; esaterako, familian, lanean edo norberaren eguneroko bizitzan gertatzen diren ikaskuntza-jarduerak dira.

Bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa<sup>4</sup> pertsonak ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko jardueretan parte hartzetik abiatuta osatzen da.

<sup>3</sup> Eurostaten metodologia.

<sup>4</sup> Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez da tasa honetan sartzen, oso subjektiboa (norbere kabuz ikasten dena) eta herrialde batetik bestera oso irregularra baita. Iturria: Eurostat.



# 4. Ondorioak

## 4.1. Laburpena: emaitza nagusiak

Azken kapitulu honek Gipuzkoako biztanleria helduaren (25-74 urte artean) parte hartzeari dagokionez, bitzta osoko ikaskuntza-jarduerekin eta horien ezaugarriekin lotuta egindako azterketaren ideia nagusiak biltzen ditu.

### Ikasten duten pertsonak

- 2021ean, Gipuzkoako biztanleria helduaren % 38,0k adierazi du ikaskuntza-jarduerak egin dituela, eta emakumeek eta gizonezkoek antzeko parte-hartzea izan dute (% 38,3 eta % 37,8, hurrenez hurren).
- Bilakaerak jaitziera arina erakuts lezake ikaskuntza-tasan (ehuneko -2,3 puntu), baina ezohiko urtea izan denez, zuhurtzia izatea komeni da.
- Gazteak, goi mailako ikasketak dituztenak eta lan-merkatuan sartu direnak (landunak edota langabezian) dira neurri handienez ikasten dutenak.

### Ikasten ez duten pertsonak

- Oro har, profila batik bat 45 urte eta gehiagoko, eta goi mailako ikasketarik ez duten pertsonen dagokie, baina pertsona horien artean, zati garrantzitsu batek lan egiten du.
- Familia-erantzukizunak eta motibazio-gabezia dira ikaskuntzarako oztopo nagusiak. Hala ere, generoaren eta adinaren arabera, alde handiak daude.



Izenburua:	Ikasten duten pertsonak Gipuzkoan 78. dokumentua, 2021eko ekaina
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
Lanketa	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana	Datakey, S.A.